

Irun
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

315

Abenduak 15, 2017

- 2 Irun atzo Irun Gaur
- 3 Eguberrietako egitaraua
- 4-5 Saioa Martijari elkarrizketa
- 6 Asun Casasola Ipuin Lehiaketa
- 7 Atsegina erraldoien zaharberritzea
- 8-9 Kirolak: Leka Enea
- 10 Kolaborazioa: Gorka Martinez
- 11 Haurren leihoa
- 12 Gazteen lanak
- 13 Lorena Martinez eta Harkaitz Cano, elkarlanean
- 14 Gazte informazioa
- 15 Agenda

SAIOA MARTIJA, kazetaria:
"Telebistan, azterketa bat edukitzen duzu egunero"



**OLENTZERO
SESIONAK**

49€

**AGENDA IREKIA
ESKATU HITZORDUA!**

943 840 113

INFO@FOTOGOVER.COM

Gover 

HERNÁNDEZ USOBIAGA, MARÍA TERESA



Musikaria. Kantu irakaslea eta abesbatza zuzendaria. Irunen jaio zen 1885eko urtarrilaren 28an. Donostiako Orfeoiko emakumezkoen abesbatzan hasi zuen ibilbidea. Bertan Secundino Esnaola izan zuen irakasle. Beranduago, berriz, Ignacio Tabuyo, Madrilen.

Kontralto bakarlarria izan zen, eta arrakasta eduki zuen, estatu mailan eta nazioartean. Donostiako Udal Kontserbatorioko kantu katedra eskuratu zuen, oposizio bidez. 1943an, "Maitea" abesbatza sortu zuen. Alfontso X.a Jakintsuaren Gurutzea, Donostia Hiria zilarrezko domina eta Frantziako Akademiaren saria jaso zituen, besteak beste. 1975 urtean zendu zen.

Iturria: Agustin Morate.
Irun y sus gentes.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena
Unai Oiartzun

Euskara zuzentzilea:

Unai Oiartzun

Publizitatea:

Sonia Garcia Olazabal
Amaia Terrazas
Ion Otxoa

Diseinua:

Andrea Gomez Arocena

Argitaratzailea:

837 comunicación y publicidad S.L

ISSN:

1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943 04 20 52

Wegunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua:

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Zabaltza izango da udalak Eguberrietarako antolatu duen egitarauaren erdigunea

193.650 bideratu ditu Irungo Udalak Gabonetako kanpainetara



35 metroko hiru txirrista izango dira aurten Irungo Udalak Eguberrietarako antolatu duen dinamizazio kanpainako berritasuna. Zabaltza plazan egongo dira, patinatze pistarekin batera. Kaleko musika eta kultur agenda zabala ere prestatu ditu udalak, bisitariak erakartzeko edo irundarrak hirian gera daitezen bultzatzeko.

Trineoentzako hiru txirrista jarriko ditu aurten Irungo Udalak Zabaltza plazan, Eguberrietarako dinamizazio kanpainaren baitan. Hiru metroko altueratik aterako dira, eta 35 metroko ibilbidea osatuko dute. "Urtero bilatzen dugu berritasunen bat, gure hiria erakargarria izan dadin. Hiri eroso eta atsegina dugu, merkataritzaren ikuspegitik, baina egun hauetan, berdingabea izan dadin lortu nahi genuke", adierazi du Miguel Ángel Páez Merkataritza ordezkaririk.

Zabaltzan bertan, 200 m²-ko patinatze pista egongo da. Hiru euroren truke erabili ahal izango dute hamahiru urtetik gorakoek. Haurrek, berriz, bina euro oraindu beharko dute. Txirristari dagokionez, euro batean hiru jaitsiera egin ahal izango dira. Bi atrakzioetarako sarrera konbinatuak ere egongo dira, 2,50 eta 3,5 euroan. Abenduaren 15etik aurrera egongo dira zabalik, Zabaltza plazan. Bertatik pasako da, era berean, Eguberrietako bola erraldoia, merkataritza gun ezbardinetan zehar ariko baita. "Jendeak barruan sartu ahal izango du, elurtutako paisaie inguratuta argazkiak atera ahal izateko", azaldu du Páezek. Pio XIIen, Larreaundin, Urdaibia plazan, Palmera Monteron, San Juanen eta Luis Marianon egongo da, besteak beste.

Merkataritza kanpaina

Atsegin dut Irunen erostea leloa darama Irungo Udalak aurtengo Eguberrietarako martxan jarri duen kanpainak. Gabonetako erosketak hirian bertan egitera animatu nahi ditu, horrela, irundarrak. Aurreko kanpainetan erabili izan duten bihotzaren irudia berreskuratu dute horretarako. "Bertako establezimenduetan erosteak gertuko kontsumoaren eta kalitatearen bermea dauka. Ekonomia sozial justuagoa sustatzen du, gainera", adierazi du Miguel Ángel Páez Irungo Udaleko Merkataritza ordezkaririk.

Azaroan aurkeztu zuen kanpaina Irungo Udalak, azken ikerketen arabera, Eguberrietako erosketen %20 hila-bete bateko aurrerapenarekin egiten direlako. Mugi-

mentu handiena, alabaina, orain hasiko da, abenduko azken hamabostaldian. "Urtean gehien espero duten momentuetako bat da Eguberrietakoa, merkatarientzat", nabarmendu du Páezek.

Datu ekonomikoak

Eguberrietako argiak martxan daude, eta hiria apaintzeko elementuak ere kokatu dituzte. Guztira, 83.000 euroko aurrekontua bideratu du udalak hiria Eguberrietarako apaintzera. Dinamizatzeko eta merkataritza sustatzeko kanpainarekin batera, 193.650 euro erabili ditu udalak guztira, hiria Eguberrietarako prestatzeko.

Olaizola

Immobiliaria agentzia

- ✓ Salmenta Alokairuak
- ✓ Promozio berriak
- ✓ Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com



EITBko albistegietako ohiko kazetaria da, aspaldi. Hamaika urte daramatza telebista publikoan lan egiten. Bere ahotsa eta aurpegia ezagutuko ditu jende askok, baina hainbatek ez du jakingo, beharbada, Saioa Martija (1985) irundarra dela. Bilbora ikasketak egitera joan zenetik, tarteka baino ez da bueltatzen hirira. “Familiarekin eta lagunekin egotera etortzen naiz, eta gustatzen zait. Lehen iruditzen zitzaidan jende guztia ezagutzen nuela. Orain, aldiz, aurpegi berri asko ikusten ditut”, azaldu du.

Iruñean eta Bilbon lan egiten du, gaur egun, eta Leitzan bizi da. Leku ezberdin askotako jendea ezagutzea egokitu zaio, eta oro har, Irun ezezaguna dela ondorioztatu du: “Ez dira etortzen, ez dute ezagutzen. Baina jende asko gara, eta badugu zer esana”. Horren seinale, besteak beste, Ander Arzak eta Saioa Martija bera, EITBn erreferente bilakatu diren kazetariak. Euskaraz lan eginez, gainera: “Aurreiritziak apurtzeko balio baldin badu, poztan naiz. Baina kontziente izan behar dugu egia dela Irunen euskaraz gutxi egiten dela. Auzo eta leku jakin batzuetan entzuten da, baina beste askotan ez. Triste da”. Izaera kritikoa zorrotz mantentzen du Martijak.

EHUko kazetari harrobitik ateratakoa zara. Zein oroitzapen duzu unibertsitate garaitik?

Ez dauzkat oso oroitzapen onak, egia esan. Leioako kanpua mendi puntan dago, eta autobusez ia ordu beteko bidaiak egin behar izaten genituen, nahiz eta Bilbon bizi. Klaseak arratsaldez edukitzen nituen, fakultatea zahar-zaharra zen... Oroitzapen iluna dut.

Irakasle batzuk onak ziren, eta markatu ninduten. Telebistarako eta irratarako sekulako baliabideak daude, eta horiek aprobetxatu genituen. Beste irakasle batzuek, berriz, desilusio handia eragin zidaten. Onartezina iruditzen zait unibertsitateko klase batean irakasle batek bi ordu pasatzea edukiak diktatzen.

Praktikak egiteko aukera eduki zenuen, behintzat, eta atea ireki zizkizun.

EITBn egin nituen, lizentziaturako azken urtean. Gero bi urterako praktiketako kontratua lortu nuen. Ondoren, aurkezle kontratua eduki nuen, eta bukatzeko, plaza bat atera nuen azken oposaketetan. Hamaika urte daramatzat EITBn lanean. Kazetari gisa ez dut beste inon lan egin.

Oso gazte hasi zinen aurkezle lanean, 2009an. Nola sortu zitzaizun aukera?

Gazteegi hasi nintzen. Aurkezle aritzeko casting bat antolatu zuten, eta nik izena eman nuen. Banekien EITBn jarraitasunez lan egiteko modu bakarra hori zela.

Gure lanbidean, konplexuagatik edo beldurragatik, jende asko ez da halako aukeretara animatzen. Ausardia falta da, askotan.

Zergatik diozu gazteegi hasi zinela?

Ni ez nengoen prestatuta. Hala ere, ikaragarri ikasi nuen garai hartan, hanka sartze pila bat eginez. *Gauberry* albistegia aurkezten hasi nintzen, 23:00etan, oso berandu. Niretzat sekulako eskola izan zen, akatsetatik ikasten baita gehien.

Momentu horretan izan zenuen ausardiarik ez al duzu ikusten, gazteen artean?

EITBn praktikak egiten dabilzan gazteen artean, nik bi multzo egingo nituzke. Batzuek ausardia dute, ideiak proposatzen dituzte, jarrera aktiboa dute. Beste bekadun batzuek nahiago dute iskin batean geratu, pentsatuz, behar dutenean, eskatuko dietela zerbait egiteko. Gazte horiek gaitasun handia eduki dezakete, beharbada, baina iskin horretan geratzen baldin badira... Iruditzen zait jarrera eta nortasuna oso garrantzitsuak direla gure lanbidean.

Zer azpimarratuko zenuke telebistako lanaren inguruan?

Egunero azterketa bat edukitzen duzula, eta ez duela zure nagusiak bakarrik ikusten, milaka ikus-entzulek baizik. Akatsak egon daitezke edizioan, ahotsean, edo beste edozein arlotan. Oso profesional ona izan zaitezke, baina egun txarra baldin baduzu, sentsazio txarrarekin geratzen zara. Eta ez zara egunero ondo egoten, jakina.

Alde onak ere baditu, noski, oso polita da. Jende asko ezagutzen duzu, eta gai ezberdinetako gauza pila bat ikasten dituzu.

Ahoz Aho + emankizuna ere egiten duzu orain. Erritmo lasaiagoa du, eta sakontasun handiagoarekin lantzen dituzue gaiak.

Nire bigarren urtea da *Ahoz Aho* + saioan, eta oso-oso ezberdina da, albistegiekin alderatuta. Albistegietan dena mugatua dago, 40 segundoko konexioa, minutu bateko pieza, edo dena delakoa. *Ahoz Aho* +n lasaiago egoten naiz, beste patxada eta askatasun batekin. Formatuak horretarako aukera ematen du. Oso gustura ari naiz, egia esan.

Gaurkotasun gai ezberdinak lantzen dituzue. Zu zeinetan sentitzen zara erosoan?

Politikan hobeto, ekonomian baino. Ez dut gaia menderatzen, eta egokitzen zaidanean, ahalegin handia egin behar izaten dut. Gogoratzen dut ni lanean hasi nintzenean, ekonomia bigarren mailako gaia zela. Baina krisiarekin, lehentasunezoa bilakatu zen.

Berdintasunaren inguruko gaiak asko gustatzen zaizkit, eta iruditzen zait lan handia egin beharra dagoela zentzu horretan, ez baitiogu behar adinako tarterik eskaintzen.

Berdintasunaren inguruko gaiak asko gustatzen zaizkit, eta iruditzen zait lan handia egin beharra dagoela zentzu horretan, ez baitiogu behar adinako tarterik eskaintzen.

SAIOA MARTIJA, kazetaria:

“Gure lanaren balioa defendatu behar dugu”

Komunikabide publikoei leporatu ohi zaie botere politikoaren tresna izatea. Zein iritzi duzu?

EITBn lanean eman dudan denboran, al-daketak izan dira Eusko Legebiltzarrean, baina nik ez ditut nabaritu, eguneroko lanean. Nire lankideek, duela hamar urte eta orain, lan berdina egiten dute. Egia esan haluzinatu egiten dut sare sozialetan jendeak botatzen dituenekin. Azken aldian oso haserre nabil, denak zaku berean sartzen gaituztelako.

Jarriko al zenuke adibideren bat?

Guk beti hartzen dugu kontuan genero ikuspegia, saioa prestatzerakoan. Beti

saiatzen gara gonbidatuen artean oreka mantentzen, eta askotan, gainera, gehiago izaten dira emakumeak. Baina ezin duzu imajinatu batzuetan zeinen zaila den emakumeak saiora ekartzea.

Normalean, gizon bati eskatzen baldin badiozu, ez du inolako arazorik edukitzen bere jakituria guztia erakusteko. Emakumeek beti izaten dute erreparatu gehiago, nahiz eta unibertsitaterako irakasle edo enpresaburu izan. Ez dute segurtasunik haien diskurtsoa jendartean zabaltzeko. Kasu batzuetan, mahaiaren inguruan gizon gehiago baldin badaude, jendeak leporatzen digu ez ditugula genero irizpi-

deak kontuan hartzen.

Gainerakoan, nola ikusten duzu euskal kazetaritza, orokorrean?

Oso gaizki. Nik jende guztiari eskatzen diot lana doan ez egiteko. Duela gutxi, Ane Irazabalek hitzaldi batean aipatu zuen La Vanguardia egunkariarentzat zutabe bat doan idazten zuen emakume hasiberri bat ezagutu zuela. Urte bete pasa zenean, esan zien bazela garaia zutabe horren truke kobratzen hasteko. Egunkariak kaleratu egin zuen, eta lan hori doan egingo zuen beste bat hartu zuten.

Kazetaritza lan bat da, eta merezi duguna kobratu behar dugu. Errealitatea da jende askok doan egiten duela lan, edo behar baino ordu gehiago sartzen dituela.

Beharrezkoa al da kazetaritza, gaur egun?

Bai noski, ezinbestekoak gara, profesionalak garelako. Egia da, interneten garaian, zalantzan jartzen gaituztela. Barkatu, baina sare sozialetan argazkiak eta iruzkinak elkarbanatzen dituen norbaitek borrodatzerik onena izan dezake, baina ez da profesionala. Zorrotzak izan behar gara, eta gure lanaren balioa defendatu.

EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK



Meaka auzoa, 9 - 20305 IRUN
Tel.: 943 841 964



FELIX MANSO IBARLA JATETXEA



info@felixmanso.com
www.felixmanso.com

Nerabeek ere parte hartu ahal izango dute Asun Casasolan

Kategoria eta sari berriak edukiko ditu aurten ipuin lehiaketak



Indarberrituta dator Asun Casasola Ipuin Lehiaketa. Hirugarren edizioa izango du aurten, Nagore Laffage, lehiaketari izena ematen dion Asun Casasolaren alaba erail zutenetik hamarkada beteko denean. "Ama haren borrokarekin bat egitea da lehiaketa honen helburua", gogorarazi du Eneritz Dueso antolakuntza lan taldeko kideak. Bertan izan diren aldaketek gainera, bi berritasun ditu aurten lehiaketak. Alde batetik, gazteei zuzendutako kategoria. Bestetik, sariak. Gehiago eta handiagoak izango dira, oraingoa, Asun Casasola lehiaketako sariak.

Helduei zuzendua izan da, orain arte, Asun Casasola Ipuin Lehiaketa. Euskarazko eta gaztelaniazko atalak egon dira, lehen bi edizioetan. Aurten, berriz, gazteentzako kategoria egongo da, bi hizkuntzetan, 12 eta 16 urte arteko nerabeentzat. "DBHko ikasleak dira, eta eskualdeko ikastetxei eskatu nahi genieke haien lanketa egiteko, gazteek parte har dezaten", azaldu du Nerea Sarriegik. Iaz euskarazko saria eskuratu zuen hondarri-biarrak, eta aurten, antolakuntzan dabil. Izan ere, orain arte Asun Casasola antolatzen ibili direnek lan taldea handitzeko gonbidapenak luzatu dituzte, lehiaketa indartzeko asmoz.

Beste arlo batean ere handitu da lehiaketa, sarietan, hain zuzen ere. 16 urtetik gorako kategoria bi irabazle egongo dira, euskarazko eta gaztelaniazko atal bakoitzean bana. 400 euro jasoko du irabazle bakoitzak. 12 eta 16 urte arteko kategoria ere irabazle bana egongo da, hizkuntza bakoitzeko. Sariak, 150 eurokoak izango dira gazteentzat. Gainera, Brontë liburu-dendan liburutan gastatzeko bono bat ere emango dute. Sari berezi hori gazteek aukeratuko dute, epai-mahaiko kideek alde aurretik hautatutako hiru lanen artean. "Iruditzen zaigu

ezinbestekoa dela datozen belaunaldiek genero indarkeriaren gaia esku artean edukitzea", adierazi du Eneritz Dueso antolakuntzako kideak. Iaz epai-mahaiko kide izan zen irundarra.

Sarietan egon den emendatzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesari eta iaz Super Amara Bidasoa Atletiko taldearekin hasitako kolaborazioari esker izan da posible. Izan ere, iazko Gabonetako Krosa lasterketako dortsal bakoitzeko euro bana Asun Casasola Ipuin Lehiaketara bideratu zuen atletismo elkarteak.

Lanak aurkezteko epeak eta moduak

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira, azaroaren 25ean zabaldu dute lanak aurkezteko epea. 12 eta 16 urte artekoek urtarrilaren 20ra arte dute horretarako aukera. 16 urtetik gorakoentzat epea luzeagoa da, otsailaren 10era arte. asuncasola@gmail.com helbide elektronikora edo Brontë liburu-dendara bidal daitezke lanak (Kale Nagusia, 16), pdf formatuan edo paperean. Liburu-dendan bertan eskura ere eman daitezke.

Orrialde bateko ipuinak izan beharko dira, Arial 12 letra motan idatziak. Gainerako baldintzak www.asuncasolaipuina.eus web gunean ikus daitezke. Idazlanaz gainera, beste gutun-azal batean izen-abizenak, NAN zenbakia, helbidea, jaioteguna eta kontakturako bideak idatzi beharko ditu egileak. Lan guztiak bilduta, epai-mahaiko kideen lana hasiko da. "Literaturarekin edo feminismoarekin lotura edukiko dute", nabarmendu du Nerea Sarriegik. Sariak martxoaren 8an banatuko dituzte. *Ez da ez da aurtengo leloa, eta gaia. "Siplea eta gogoratzeko erraza", aipatu du Eneritz Duesok: "Baina ematen du gizarterari oraindik ez zaiola argi geratu".*

"Iruditzen zaigu ezinbestekoa dela datozen belaunaldiek genero indarkeriaren gaia esku artean edukitzea"

Eneritz Dueso, antolatzailea

Erraldoiak zaharberrituko dituzte

Edonork parte har dezake Irungo Atseginak martxan jarri duen finantziario kanpainan Erraldoien historia berreraikitzeke ikerketa historikoa ere egin nahi dute

Euri zaparradak eta haize ufada indartsuak izan ziren protagonista, joan den ekainaren 28an. Besteak beste, udalaren egitarauan programatua zegoen Mägo de Oz taldearen kontzertua bertan behera gelditu zen. Irungo Atsegina elkarteko erraldoien eta buruhandien konpartsa, berriz, kaleetan zehar ibili zen, zintzo. Erraldoietako bat lurrera erori zen, alabaina, eta kalte larriak jasan zituen. Ezbehar hura baliatuta, zortzi erraldoiak zaharberritzeko erabakia hartu du elkarteak. "Aspaldi egin nahian genbiltzan, eta hura behin-betiko bultzada izan zen", azaldu du Eneko Calvo Irungo Atsegina elkarteko zuzendaritzako kideak. Edonork egin dezake bere ekarpena, Crowdfunding kanpaina martxan jarri baitu elkarteak.



"Ondare gisa duten balioa azpimarratu nahi genuke, ekimen eta jarduera ezberdinen bitartez"

Eneko Calvo, Irungo Atsegina elkarteko kidea

Jende askorentzat, Irungo erraldoiak dira, besterik gabe. Udalarenak direla pentsatzen dutenen iritzia oso zabaldua da. Errealitatea da Irungo Atsegina elkarte delako hain jabea, 1937an, Doña Maria Gal andereak buruhandiekin batera, dohaintzan eman zizkionetik. Lau bikote dira, alkate-alkatesak, baserritarrak, beltzak eta turkoak. Horrelaxe ezagutzen dituzte irundar gehienek. Sanmartzialetan, inauterietan, Euskal Jiran eta beste hainbat ekitalditan ibili izan dira urtero, Irungo kaleetan gora eta behera. "Ahal bezain ondo zaindu ditugu, orain arte. Baina aspaldikoak dira, eta egia esan, nahiko kaltetuta zeuden", aitortu du Eneko Calvo.

Modu ahalik eta profesionalenean zaharberritzeko erabakia hartu du Atseginak, eta horretarako, Iruñeko Esku Artean enpresarekin harremanetan jarri da. Bertan egin dituzten lanetako batzuen berri eman du Calvo: "Donostiako erraldoiak edo Sevillako Aste Santuko pasoak zaharberritu dituzte, besteak beste". Lehen laginak bidali dizkietenean, Iruñetik esan diete sekulako altxorra dutela. Aurpegi espresioagatik, eta buruen tamainagatik, besteak beste. Baina batez ere, erraldoien eskuak eragin dute zaharberritze profesionalen harridura: "Zedro egurrezkoak dira, eskuz eta banan-banan landuak. Denak ezberdinak".

"Finantziarioan parte hartu dutenen izenak agertuko dira erraldoietan idatzita"

Eneko Calvo, Irungo Atsegina elkarteko kidea

Erraldoien jatorria

Irungo Atsegina elkartean bazekiten erraldoiak aspaldikoak zirela: "Guk topatutako argazki batean, Irungo udaletxearen aurrean agertzen dira, 1920ko hamarkadan". Iruñera nola iritsi ziren, alabaina, ezezaguna zen elkartearentzat. Esku Artean enpresak 1896an Bilbon ateratako argazki bat topatu du. Bertan, Irungo erraldoien berdinak diruditen erraldoi batzuk agertzen dira. "Ezin dugu baieztatu erraldoi berberak direnik", zehaztu du, tentuz, Eneko Calvo. Bilboko Euskal Museoan eman dieten informazioaren arabera, Basterra eta Larrea artisauek egin zituzten erraldoien eskuak eta buruak, 1895ean. "Nebulosa bat dago ondoren, batzuek diote erre zirela, beste batzuek desagertu zirela...", adierazi du Calvo.

Ondoren, jakina da gaur egungo Irungo erraldoiak Donostian erabili izan zirela. Arana zezen plazako enpresariarenak omen zirela azaldu du Eneko Calvo: "Alderdi Ederretik ateratzen zituzten, jendea zezen plazara joan zedin animatzeko". Beranduago, Irungo San Miguel auzora eraman zituzten, erraldoi eta buruhandien zarzuela batean parte hartzeko. Gal familiak erosi zituen orduan. Erraldoien historia horretan sakontzeko, eta geratzen diren hutsuneak argitzeko, ikerketa historiko zorrotza egin nahi dutela baieztatu du Calvo: "Ondare gisa duten balioa azpimarratu nahi genuke, ekimen eta jarduera ezberdinen bitartez". Edonola ere, lehen urratsa, erraldoi bikoteak zaharberritzea da.

Finantziario partekatua

1a 90.000 euroko aurrekontua aurkeztu dio Esku Artean enpresak Irungo Atseginari, zortzi erraldoiak zaharberritzeko. Irungo Udalarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanetan jarri da elkarteak, eta haien babesa jasoko du. Gainera, elkarlanari ekin dio Irunen dagoen Gordailua Gipuzkoako ondare higigarriaren zentroarekin. Nolanahi ere, erraldoien zaharberritzea finantzatzeko, crowdfunding kanpaina bat martxan jarri du Irungo Atsegina, nahi duen orok proiektuan parte hartu ahal izan dezan. Pasaiaiko Albalan San Juan ontziarekin erabili duten formularen eredia hartu dute.

Erraldoi bakoitza 43 zatitan banatu dute, eta nahi duenak zati horietako bat edo batzuk ordain ditzake. 40 eta 400 euroren arteko ekarpenak dira, gutxi gorabehera, eta banaka edo taldeka egin daitezke. Interesa duenak irungoerraldoiak@irungoatsegina.org helbidera idatz dezake, edo elkartera bertaratu, bestela, asteartero, 19:00etatik 20:00etara (Arbelaitz kalea, 1). "Bakoitzak ziurtagiri bana jasoko du, eta erraldoietan, finantzatu dutenen izenak egongo dira idatzita", aipatu du Calvo. Gainera, irteerak antolatu ditu Irungo Atseginak, Iruñera, errestituzio prozesua bertatik-bertara ikustera.

Errestituzioa martxan da, jada, eta behar handiena zuten erraldoiekin hasi dira Esku Artean enpresan: baserritarrekin eta turkoekin. 2018ko sanmartzialetarako prest egongo direla aurreikusi dute Irungo Atsegina elkarteak. Jaien ondoren, beste lau erraldoien zaharberritzeari ekingo diote.

Fruituak ematen hasi

Leka Enea klubaren garapena b



2013ko urrian zabaldu zituen ateak Sonia Etxazarreta teknifikazio zentroak. Azpiegiturak eskaintzen dituen aukeren eskutik, ikaragarri hazi da Leka Enea mahai tenis elkarteak, azken lau urteetan. Klubeko talde nagusiak goi mailan zeuden orduan, orain bezala. Baina oinarrian, bilakaera itzela eduki du klubak. Horren adibide dira Dani Palacios, Iker Garcia, Aimar Chamorro, Hodei Mancha eta Mikel Angulo. Teknifikazio zentroa ireki zutenean hasi ziren elkarteak, eta gaur egun, estatuko onenen artean daude, haien maila bakoitzean.

Dani Palacios (20 urte) da Leka Enea elkartearen harribitxi handienetako bat. Amaren herrian hasi zen mahai tenisean, Extremaduran. Duela lau urte Irunera iritsi zen, eta pozik dago Leka Enean: "Klub handi batean nago, maila handiko jokalarien artean". Egunero entrenatzen du Palacios, eta astean behin, behintzat, bi sesio egiten ahalegintzen da. Unibertsitatea lasai hartu duela aitortu du: "Presarik gabe ari naiz. Gainera, txapelketetarako, unibertsitateak laguntza ematen dit azterketak eta lanen datak aldatzeko".

Bigarren taldean jokatzen du gaur egun, baina talde nagusian aritu izan da, Superdibisioan, eta Europako lehia ere bai. "Presio pixka bat sentitzen da lehen taldearekin, aukera guztiak aprobetxatu behar baitira. Gainera klubak helburu handia du, European egotea urtero", aitortu du Palacios. Espainiako Txapelketako finalerdietan galdu zuen, iaz, 23 urtez azpiko mailan, bakarka. Taldeka, berriz, garaipena lortu zuen, faboritoak mendean hartuta.

Talde berean zegoen Hodei Mancha errenteriarra. Bertan hasi zen mahai tenisean, baina Irunera etorri zen duela hiru urte, aurrera pauso bat emateko asmoz. "Alde handia dago, instalazio aldetik, entrenatzaileei dagokienez etab. Han ez zegoen hobetzeko tarte handirik", onartu du. Manchak ere ikasketekin uztartzen ditu entrenamenduak, eta ahalegin handiak egiten ditu. Lanbide Heziketako gradu bat ikasten ari da Oñatin, eta Irunera zuzenean joaten da ondoren, trenean, entrenatzera.

Gaztetxoagoa da Mikel Angulo, 14 urte baititu. 10 zituenean hasi zen mahai tenisean, eta berriki, bere nazioarteko lehen lehia jokatu du, Portugalen, Espainiako selekzioarekin. Gertutik jarraitzen du federazioak, eta ez da bakarrik, are gazteagoak diren Iker Garcia eta Aimar Chamorro ere haren orbitan dabilzako. Aitaren ereduari jarraituz hasi ziren, biak, mahai tenisean. Estatu mailako lehietan ari dira biak, partidak irabazten. Estatuko ipar aldeko zonalean onena izan zen Aimar, iaz, eta hirugarren, Iker.

Folder

Paper-dendarik merkeena
ZIURTATUTA

Kolon ibilbidea, 2
(atzeko aldea)
www.kopiar.net
kopiar@kopiar.net
943 63 93 01

da Sonia Etxazarreta

ultzatu du teknifikazio zentroak



Harrobiaren garapena

Espainiako Txapelketetara sailkatzeko bidea dira lehiaketa zonal horiek. Duela lau urte, bizpahiru jokalar sailkatzen zituen Leka Eneak. Aurten, 18 eraman dituzte, eta 14 sailkatu. Emaitzetan bakarrik ez, kopuruetan ere garapen handia eduki du klubak. Gaur egun, 120 neska mutil ari dira mahai-tenis eskolan. Horrek, jakina, lotura estua du Sonia Etxazarreta teknifikazio zentroak eskaini dituen aukerekin. "Sekulako luxua da azpiegitura hauek edukitzea", aitortu du Gorka Fernandez Leka Eneako harrobiaren arduradunak: "Nire garaian, Artalekuko korridoretan entrenatzen genuen. Pentsa aldea zer nolakoa den".

Nahi duten egunetan eta orduetan ireki ahal izatea da Fernandezek gehien baloratzen duen aukeretako bat.

Bestalde, entrenamenduen maila handitu dela uste du: "Asko ikasten ari gara, eta gero eta gehiago irakasten diegu, horrela, gazteei". Espainiako federazioarekin harreman ona du klubak. Kontzentrazioak antolatzen ditu, eta jokalaria bidaltzen ditu, tarteka, Madrilen dagoen errendimendu handiko zentrora.

Talde bana kategoria bakoitzean

Erreferentea da Leka Enea, momentu honetan, talde bana duelako estatuko kategoria bakoitzean, emakumetan eta gizonetan. Goi mailan, emakumezkoen eta gizonzkoen taldeak ditu Leka Eneak, Superdibisioan. Aurten, gainera, Europa mailako ETTU Cup lehiaketa aritu dira biak. Bigarren kategorian, Ohorezko Mailan ere, gizonen eta emakumeen taldeak ditu Leka Eneak. Hortik behera, maila guztietan ditu ordezkariak. Horiek

horrela, etorkizunean, talde nagusietan gero eta irundar gehiago edukitzea da Leka Enea elkartearen helburua.

Ateak zabalik ditu Leka Eneak, mahai tenisean proba egin nahi duen edonorentzat. Haurren Eskola du, alde batetik, klubaren harrobiaren oinarria, hain zuzen ere. Baina Helduen Eskola ere eskaintzen du, gero eta jende gehiago erakartzen duena. Bestalde, Mugitu taldea ere eratu du Leka Eneak, lehiatzeko helbururik gabe, kirola egin nahi duen jendearentzat. Sonia Etxazarreta teknifikazio zentroko mahaien eta gimnasioaren erabilera eskaintzen du, hileko 20 euroren truke.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



caser
residencial

GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169



ARXURIA (758m) ETA MENDIBIL (617m) ZUGARRAMURDITIK



GORKA MARTINEZ

unpaisenmimochila.blogspot.com

Denbora: 3 ordu (geldialdirik gabe).

Tontorrak: Arxuria (758m) eta Mendibil (617m).

Zailtasuna: Erraza. Ez da luzea, eta gainditu beharreko desnibela ez da handia. Hala ere, zenbait aldapa gogor topatuko ditugu bidean. Bidexka estuak eta arroka handiak ez dira erosoak.



Zugarramurdi herria (Nafarroa) inguratzen duten mendien artean garaiena da Arxuria (758m). Ibilbide biribil bat osatuz, Mendibil (617m) tontorretik pasatzeko aukera dago. Sorginkeria kasuengatik ezaguna da Zugarramurdi. Herriko hamabi emakume hiltzera kondenatu zituen Inkisizioak, 1610 urtean.

Herriko plazatik, zementuzko pista bat hartuko dugu, azkar igotzen dena. 2km-ren buruan, eguneko lehen tontorrera iritsiko gara: Urbiako lepora (428m). Bertatik, oso gertu ikusiko dugu Mendibil tontorra (617m). Kostako zaigu, hala ere, iristea.

Iratzeen artetik jaitsiko gara, Ibañeta leporaino (506m). Bertatik, joan-etorriko ibilbidea egingo dugu, eguneko tontor altuenera. Marka horiak jarraitu ahal izango ditugu, eta irten garenetik bi ordu bete direnean, Arxuriara iritsiko gara (758m). Inguruko mendien eta Lapurdiko lurraldearen ikuspegi ederra edukiko dugu bertatik.

Ibañetara itzulita, ezker aldean geratzen den basoan murgilduko gara, Zugarramurdirako bidea markatzen duen kartela jarraituz. Norabidea ez da oso agerikoa, eta animaliak topa ditzakegu, tarteka. Minutu batzuen buruan, dena den, Zugarramurdiraino eramango gaituen errepedera iritsiko gara (3 ordu).



Belaskoenea LH1

PIET MONDRIAN



Abstrikatu Piet Mondrian izeneko margolari holandarra eragile dugu. Badakizue Piet Mondrian irakurlea zela baina asko gustatzen zitzaion margotzea horregatik Parisera joan zen eta han, oso ospetsua egin zen. Berak marraz berdikolak horizontalak eta bertikalen bitartean eta sinarririk ezorobak: urdina horia eta gorria.



2. A DANIELA

BELASKOENEA IKASTETXEA 1. ZIKLOA



ANTXETA
IRRATIA

90.5 / 89.7 FM

Anaka kalea, 11
IRUN
943.61.54.57

TABISA
TANATORIO DEL BIDASOA

San Pedro kalea, 49
HONDARRIBIA
943.64.54.57



BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN

Euzkaraz, Irunen barrena

Olentzero guria ezin dugu ase

Olentzero guria ezin dugu ase osorik jan dizkigu hamar txerri gazte, odolki eta xolomo makiña bat heste Jesus jaio dalako kontsola zaitzte

Irungo G.O.S., 62 urteko gizonari jaso. Tolosan jaio eta Irunen bizi eta hil zen (1904) osaba bati ikasi zion. (Irun, 1959-XII-6). (El Bidasoa, 1959-XII-19)

**Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena**

Irungo La Salle LH3

BIDASOAKO 9. ZENBAKIA

Eskubaloiko Bidasoako taldean irundar batzuk daude. Horietako bat **INIGO ALDABA** da.

Hementxe egindako elkarrizketa bat :

-Noiz hasi zinen eskubaloian jolasten?

9 urtekin hasi nintzen eskola kirolean eta 11 urtekin Bidasoara joan nintzen.

-Zenbat urte zenituen esan zizutenean Asobal Ligan jolasteko?

19 urtekin esan zidaten jolasteko.

-Zerbait egiten duzu eskubaloia aparte?

Bai, Donostiako UPV unibertsitatean ingeniaritza ikasten dut.

-Eskubaloian zenbat ordu sartzen dituzu astero?

Gutxi gora behera 14 ordu sartzen ditut astero.

-Nola hateratzen dituzu ikasketak eta eskubaloia?

Goizetan bi ganzak egiten saiatzen naiz eta arratsaldeetan entrenamendua.

-Zerbait utzi duzu eskubaloiarengatik?

Lagunekin denbora gutxiago egotea.

-Zergatik eskubaloia bai eta ez beste kirol bat?

Saskibaloia eta golfa asko gustatzen zaizkit ... Baina gogoratzen dut nire guraoek txikia nintzenean asko eramaten nindutela Artalekura.

-Partiduan zaudenean oihuak entzuten dira?

Bai, eta hori eragiten dizu aurrera jarraitzea, gehien bat galtzen baldin bagoaz .

Beno, eskerrik asko galdera hauei erantzuteagatik eta beste bat arte.

Ana Monserrat Senosiain
Irungo La Salle LH 6. maila



- METODOA: K-STRETCH[®]
- METODOA: HIPOPRESIBOA[®]
- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT

www.kineesis.net www.k-stretch.com

Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN, 943 626 983 - 606 298 640



Guraize urdinak

Ilustrazioan bidea egiten ari da Lorena Martinez irundarra, bere estilo bereziarekin

Harkaitz Cano idazlearekin lan egin du ilustratzaileak, *Zer demontre dago aulkien azpian* liburuan



Ez ohiko ilustratzailea da Lorena Martinez Oronoz (Irun, 1973). Arrazoi ezberdinengatik. Nekazaritza Ingeniaritza Teknikoa ikasi zuen, eta lorategien diseinatzaile izan zen, ilustratzaile baino lehenago. Kolorea eta marrazketa gehiago gustatzen zitzaizkiola konturatu zenean, ordea, ilustrazioaren munduan murgildu zen, pixkanaka. Juan Kruz Igarabide idazlearekin egin zuen lehen lana.

Ondoren, bere estilo propioa bilatuz eta garatuz joan da. "Ez dago Lorenaren moduko marrazkilaririk, gure artean. Oso berezia da", baieztatu du Harkaitz Cano idazleak (Lasarte Oria, 1975), joan den azaroaren 29an Irungo Brontë liburu-dendan, *Zer demontre dago aulkien azpian* liburua argitaratu, Pamiela argitaletxearen eskutik.

Guraizez moztutako kartulina ebakinekin lan egiten du, gaur egun, Lorena Martinezek. Azaldu du guraize urdin batzuk direla bere erreminta bakarra. "Urdinak behar dute izan", zehaztu du, ironiaz, Harkaitz Canok. Jada existitzen ez den Donostiako Arteleku kultur gunean ezagutu zuten elkar, Galtzagorri elkarteak antolatu zuen ikastaro batean.

Hamar ilustratzailez inguratuta egon zen Cano, Artelekun. Altxamendu txiki baten lekuko izan zela gogoratu du: "Normalean, ilustratzaileek enkarguak jasotzen dituzte. Baina ikastaro hartan, kontrako norabidean lan egiteko aldarria egin zuten". *Zer demontre dago aulkien*

"Elkarrekiko aurreikuspenak hautsi ditugu"

Harkaitz Cano, idazlea

"Uste dut aurrerantzean horrela lan egingo dudala"

Lorena Martinez, ilustratzailea

azpian libururako, Lorena Martinezek modu demokratiakoan lan egitea proposatu zion. Batzuetan, Martinezen ilustrazioei testua jarri zien Canok. Beste batzuetan, kontrakoa izan zen prozesua.

Harkaitz Canok baieztatu du oso zaila iruditu zitzaiola irudi bakoitzeko istorio bakarra hautatzea, Martinezen irudiak oso abstraktuak direlako, eta aukera asko zabalitzen dituztelako. Kontrako norabidean ere, ezusteko han-

diak hartu zituen Canok: "Elkarrekiko aurreikuspenak hautsi ditugula esango nuke. Lorenak ez zuen inoiz marrazten nik buruan nuena, eta alderantziz. Jolas hori oso ederra da".

Helduentzako ilustrazioa?

Testu eta irudi guztiak prest eduki zituztenean, bizpahiru bilera egin behar izan zituzten, denak ordenatzeko. "Mahai gainean jarri genituen, eta eztabaidatzen hasi ginen, koloreak zirela, testuen luzera zela etab.", azaldu du Lorena Martinezek. *Zer demontre dago aulkien azpian* ez da jarraipen kronologikoa duen istorio bat, baina barne logikak ditu. Eta jende askok pentsa dezakeenaren kontra, ez da haurrentzako liburua. Haurrentzako soilik ez, bederen. "Iruditzen zait aurreratu egin garela", aitortu du Harkaitz Canok: "Helduak-ilustrazioak binomioak beldurra ematen du oraindik". Edonola ere, ez da presaka irakurtzeko moduko liburua. Gogoeta egitera eta imajinarioa garatzera gonbidatzen du irakurlea.

Esperientziaren balorazio positiboa egin dute idazleak eta ilustratzaileak. "Liberazioa izan da", baieztatu du Martinezek: "Uste dut aurrerantzean horrela lan egingo dudala. Bide bat ireki zait". Ilustrazioan bere bidea egiten jarraitu du, behintzat, Lorena Martinezek. Aurten, *Zortzi kolore* liburua argitaratu du, Denonartean argitaletxearekin. Oso testu gutxi du, hitz bat edo bi, ilustrazio bakoitzeko. Koloreak, zortzi besterik ez. Kolore basikoak, Martinezen gogokoenak.



- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173



DYA
GIPUZKOA

Breakdance Nazioarteko Txapelketa

Urte hauetan ohi denez, 80-90 parte-hartzaile inguru izango direla espero da, Espainia osotik eta Frantziatik etorriak.

Eguna: abenduak 23

Jarduerak:

Oilar gudua (Wraphouse). Freestyle lehiaketa (MCak, 1vs.1)

Ordua: 15:30 - 17:30 Lekua: Pío XII. plaza

Graffiti zone: Lauburuko lñakik horma-irudi bat egingo du oilar gudua egin bitartean

Ordua: 15:00 - 17:30

Lekua: Pío XII. plazan

Urban Dance erakustaldia

Epaimahai profesionala:
Bboy BeeD (Yeah Yellow - Phase T Paris)
Bgirl KAMI (Yeah YELLOW PARIS-FR)
Bboy Chey (ElectroDuendes Crew - Arcopom)

Sarrerak: Interneten bidez, leihatilan, txapelketaren egunean bertan, Irungo Turismo Bulegoan (Luis Mariano plaza)

Prezioa: 4,20 €



Eskiatzera goaz!!! Ba al zatoz? Snowboard ere egingo dugu!

Noiz: urtarrilak 27, larunbata

Nora: Arettera

Adina: 12-22 urte bitarteko gazteak

Irteera: 6:00 (Biserako autobus geltokian)
Iristea: 20:00 (Biserako autobus geltokian)

Prezioa: 21,75 € (autobusa + materialaren alokairua + 2 orduko klasea + forfaita + aseguru)

Izen-ematea: Irungo Gazteleku edo IGazten (Irungo Gazte Informazio Bulegoan).
Korreo elektronikoren bidez: gazteleku@irun.org. Izen-emate epea urtarrilak 19ra arte.

Informazio gehiago:
www.irun.org/igazte



Azterketak!!! IKASKETA GELAk ordu gehiagoz egongo dira zabalik


Badatoz azterketak, eta CBA Kultur Guneako liburutegiko ikasketa gelak denbora gehiagoz egongo dira zabalik

Datak: abenduaren 9tik otsailaren 4ra

Ordutegia:
- Astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 20:00etara

- Larunbatetan, 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 20:00etara

- Igandeetan, 09:00etatik 13:00etara



Sorosle eta Lehen Sorospen ikastaroa Donostian

Datak: Abenduaren 26tik urtarrilaren 5era

Ordutegia: 09:00etatik 13:00etara

Lekua: DYako Formazio eta Boluntarioria Gunean (Baratzategi kalea, 10 - Intxaurren auzoa)

Izen emateak: 943 46 46 22 telefonon

Matrikula: 110 euro

Informazio gehiago: DYA Gipuzkoa

Eta gainera, hala nahi duten ikasleek Sorospen titulua eskura dezakete kurtso amaieran egiten diren kalifikazio probak gaindituz gero



Abenduak

17

Irungo inguruetatik zehar mendi ibilbidea

Zer:

Irungo inguruetatik zehar mendi ibilbidea

Ordua:

08:00etan

Irteera:

San Juan Plazan

Prezioa:

Doan

17

Gabonetako ongintzazko kontzertua

Zer:

Orquesta Ma Non Troppo eta Ametsa Abesbatzaren emanaldia

Zuzendaria: Fernando Etxepare

Sopranoa: Ainhoa Garmendia

Piano jolea: Arkaitz Mendoza

Laguntzailea: Rotary Club Bidasoa.

Ordua:

19:00tan.

Non: Amaia KZn.

Prezioa: 15 euro

22

Kontzertua: Gospel, Ametsa gazte abesbatza

Non:

San Juan Harria plazan

Ordutegia:

19:30etatik 21:00etara

Prezioa:

Doan.



Urtarrilaren 1ra arte

Izotzezko pista eta txirrista

Non: Zabaltza plazan

Prezioak:

- Pista: 3€ helduak eta 13 urte baino gehiago dutenak, eta 2€ bestekak

- Txirrista: 1€ hiru jait-siera

- Pista eta txirrista batera erabiltzea: 2,50 eta 3,50 20 minutuko pista erabilera eta hiru jait-siera

Urtarrilaren 4ra arte

2017ko jaiotzaren eta Olentzeroen erakusketa

Ordutegia: Asteartetik larunbatera 18:00-21:00; Igandean 11:30-13:30. Itxita egongo da abenduaren 24an, 25ean, 31an; urtarrilaren 1ean.

Non: Amaia KZn

Prezioa: Doan

Urtarrilaren 14ra arte

Erakusketa: Alfonso Murillo

Zer: Alfonso Murilloren pintura erakusketa. Diseinu grafikoko eta argazkigintzako ikastaroak ere egin ditu, nahiz eta orain, margoketan dagoen buru belarri sartuta, ez ditu bazterrean uzten azken bi hauek, hiru munduak fusionatuz

Ordutegia:

Ostegunetik larunbatera, 19:00etatik aurrera

Non:

Kabigorri Bidasoaldeko Ateneoa
Sargia, 1, atzekaldea

Prezioa: Doan



telemobiliaria

Nafarroa ibilbidea, 7 - IRUN ☎ +34 669 408 705

info@ekarimmobiliaria.com www.ekarimmobiliaria.com

PRIMERAKO AUKERAK

 <p>Pisua salgai Irun Elizate Azalera 60 m², 2 gela, 100000€</p>	 <p>Pisua salgai Irun Meabe Azalera 57 m², 2 gela, 125000€</p>	 <p>Pisua salgai Sahobin Azalera 50 m², 2 gela, 135000€</p>
 <p>Pisua salgai Irun Urcambio Azalera 90 m², 3 gela, 200000€</p>	 <p>Pisua salgai Irun Oibarria Azalera 60 m², 3 gela, 250000€</p>	 <p>Pisua salgai Irun Rubin Azalera 70 m², 3 gela, 210000€</p>
 <p>Etxea salgai Irun Pitarua Azalera 120 m², 4 gela, 299000€</p>	 <p>Lokala salgai Irun Juan Arana Azalera 30 m², eta 40 m² eremua, 176000€</p>	 <p>Etxea salgai Lecorua XV2 eremuko etxe erdiko etxea, azalera 300 m², 4 gela, 498000€</p>

"ALQUILER PREMIUM" ALOKATU PISUAK ETA LOKALAK GUREKIN



bertako

igogailuak | ascensores
igogailuen mantentzen-lanak

24 orduko
benetako zerbitzua



Pieza guztiak barne
100 eurotik aurrera

Euskarazko
zerbitzu profesionala



EMERGENTZIA-TELEFONOA DOAN
LED ARGIEN ITZALTZE AUTOMATIKOA KABINAN
IRAUPEN-KONPROMISO GABE

ESKATU AURREKONTUA

www.bertako.eus
info@bertako.eus
691 64 79 65